

MIRAMAR PARTZUERGOAREN EGOERA DELA-ETA MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Miramar Partzuergoaren egoera dela eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko apirilaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

1985eko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak eta Udalaren artean, Miramar Partzuergoa osatu zuten, eta urte bereko urrian Foru Aldundiak bertan parte hartzeko erabakia hartu zuen. Beraz, Miramar Jauregia kudeatu ahal izateko, hiru instituzioen arteko elkarlana sustatu zen.

Jakin genuen Eusko Jaurlaritzak -beti Kultura Sailari atxikituta egon da-, partzuergoa utzi nahi zuela. Hori dela eta, Udalbatzak EH Bilduk aurkeztutako mozio hau onartu zuen:

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio eskura dituen baliabide guztiak erabil ditzala, Eusko Jaurlaritzak Miramar Partzuergotik alde egin ez dezan.

Geroztik partzuergoak diru-sarrerak eta lehiakortasuna hobetzeko txostenak eskatu dizkie bi enpresari. Orain arte, alkateak aukera moduan bi lan ildo jarri ditu mahai gainean: lorategi azpian aparkalekua egitea (dagoeneko bertan behera geratu omen dena) eta hotel bat irekitzea. Besterik ez. Argi dago Donostiak ez duela beste hotelik behar Miramarren. Eta argi dago Eusko Jaurlaritzak partzuergoan jarraitzea komeni zaiola Donostiari. Baina honetaz txintik ere ez dio alkateak.

Batzordean, Jon Insausti zinegotzi-delegatuak hotela aukera bat zela mantendu zuen, baina erabakirik ez dela hartu gaineratuz. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Miramar Partzuergoan jarraituko duen ala ez, ez da argitu. Gogorarazi nahi dugu, gainera, bazkide batek partzuergoa utzi nahi balu, besteen oniritzia (Foru Aldundiarena eta Udalarena, kasu honetan) behar dela.

Begien bistakoa da Miramarrek garrantzi handia duela Donostiarentzat, eta ikusita Udal Gobernuak oraindik ere ez duela irizpide garbirik, funtsezkoa iruditzen zaigu udal talde guztien artean irizpide hori finkatzea.

Honegatik guztiarengatik hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

MOZIOA

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, Miramarreko eraikuntzari buruzko etorkizuna finkatzeko, udal talde guztiekin landu ditzala Udalaren irizpideak.

Donostian 2018ko apirilaren 20an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia